

**OSAKIDETZA – EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIOKO
KONTSEILUAREN EZOHIKO BILERAREN AKTA
2025EKO ABENDUAREN 16A**

2025eko abenduaren 16an, 13:00etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da erakunde publiko horren Zuzendaritza Nagusian (Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz). Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kontseiluburuak deialdia egin ondoren, kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua, kontseiluburua; **Gontzal Tamayo Medel jauna**, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea; **Aritz Uriarte Fuertes jauna**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**.

Ezin etorria adierazi du **José Enrique Corchón Álvarez jaunak**, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politika eta Aurrekontuetako sailburuordeak, eta botoa eta ordezkaritza eskuordetu dizkio **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunari**, Aurrekontuen zuzendaria (erantsita dago ordezkaritza emateko agiria).

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek osoko bilkura eratu dute, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta aldeztatik bidalita zegoen gaitzerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutuen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, kontseiluburuaren baimenarekin, Ente Publikoko zuzendari nagusi **Lorea Bilbao Arteche andrea**, eta Ente Publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA. – 2025eko abenduaren 2ko bileraren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onartzen dute 2025eko abenduaren 2an egindako bileraren akta.

BIGARRENA. – 2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren erabaki-proposamena aurkeztea, Administrazio Kontseiluak onets dezan, hala badagokio.

Osakidetza Ente Publikoaren estatutuen arabera, Administrazio Kontseiluak onartuko ditu plan estrategikoak.

Estatutuetan jasotzen den bezala, Osakidetzak, bere helburuak garatzean, interes orokorreko helburuak lortu nahi ditu; besteak beste, honako hauek: beren zerbitzuak baliatzen dituzten pertsonen beren eskubideak eta betebeharrak erabat baliatzeko behar dituzten baldintzak ematea; osasun-zientzietako irakaskuntza ematea, bai eta horiekin lotutako ikerketa-, azterketa- eta dibulgazio-jarduerak ere; langile espezializatuek eta ez-sanitarioek behar dituzten ezagutza espezializatuen prestakuntza eta eguneratzea sustatzea; beren osasun-baliabideen garapena sustatzea, ekintza eta programa propioen bidez edo beste erakunde batzuekin lankidetzan.

Esparru horretan, Plan honen bidez Osakidetzak ematen dituen dirulaguntzak honako arlo hauetan egituratzen dira:

- Osasun.zientzietako irakaskuntza sustatzea.
- Ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea.
- Organo, odol eta ehunen donazio altruistak bultzatzeko jarduerak sustatzea

Plan hau egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira, eta 2026ko Planaren indarraldian horretarako eskuragarri zeuden baliabideekin alderatu dira. Horrela, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handituko direla bermatzen da, bai eta gure jarduera-eremuan gardentasuna indartuko dela ere.

Planak izaera programatikoa du, eta, beraz, edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Plana eraginkorra izateko, dirulaguntza-lerroak abian jarri beharko dira, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, besteak beste.

Planak Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren 2026rako dirulaguntzak jasotzen ditu. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eskakizunak betetzen ditu 2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak.

A) Osasun-zientzietako irakaskuntza sustatzeari dagokionez:

- Dirulaguntza izenduna: Osasun-zientzietako irakaskuntza sustatzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroak Fundazioari dirulaguntza ematea.

Aipatutako dirulaguntzaren helburua ezagutzaren kudeaketan aurrera egitea da, komunikatzeko eta parte hartzeko bideak zabalduz eta EHUrekiko lankidetzak sustatuz, Udako Unibertsitatearen ikastaroen bidez. 2026an, 40.000,00 euroko partida bideratuko da helburu horietarako.

B) Ikerketaren eta berrikuntzaren sustapenari dagokionez,

Helburu hauek ditu:

- Ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikokoa eta zerbitzu sanitarioetakoa sustatzea.
- Osasun-sistemaren programek eta politikek oinarri zientifikoa izatea.

- Lehentasunez sustatzea ikerketa traslazonala, hau da, ezagutza zientifikoak praktika klinikora azkarrago eramateko ikerketa, nazioarteko gomendioen arabera.
- Ezagutza partekatzea Euskal osasun-sistemaren barruan eta kanpoan, ikerketaren emaitzak zabalduz.

2026an, helburu hauetarako erabiliko da:

- 10.000 euroko partida bat BIOBIZKAIA fundazioari, proiektu aktibo bat baitu.
- 82.000 euroko partida bat BIOGIPUZKOA fundazioari, 8 proiektu aktibo baititu.

C) Organoak, odola eta ehunak altruismoz emateko jarduerak sustatzeari dagokionez,

- Organo, odol eta ehunen donazio altruistak bultzatzeko jarduerak sustatzea.
- Dirulaguntza “Giza jatorriko substantziak (SoHO) Euskadin sustatzeko fundazioari”.

Helburua da Euskadin odola emateko jarduerak sustatzea, baita donazio altruistak transfusio-sistemaren oinarritzko elementu izaten jarraitzea, eta emaille berriak erakartzea sustatzea, erkidegoan nahikoa odol-produktu eta hemoderibatu plastiko daudela bermatuta. 2026an, 3.762.786 euroko partida bideratuko da helburu horietarako.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

HIRUGARRENA. – 2026ko ekitaldian egin beharreko inbertsio estrategikoak, kontratazio korporatiboko ondasunen eta zerbitzuen erosketak eta erosketa integratu eta zentralizatuen programa zehazten dituen erabaki-proposamena aurkeztea, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak onets dezan, hala badagokio.

Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuen arabera, Administrazio Kontseiluak onetsiko ditu estrategikotzat jotzen diren inbertsioak eta horniduren erosketa bateratuak.

Estrategikotzat jo diren inbertsioen esleipenetan izandako bajen ondoriozko kredituek beharizan berriak betetzera bideratuta egon behar dute. Horretarako, Osakidetzako zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio aipatu soberakinen bidez eginiko erosketak estrategikotzat jotzeko.

2026rako, eta zuzendari nagusiak proposatuta, honako hauek izango dira estrategikoak eta kontratazio korporatibokoak:

- Erabakiaren I. eranskinean adierazten diren obra eta ekipamenduetarako inbertsioak.
- Telekomunikazio korporatiboen zerbitzuen kontratazioak eta aplikazio informatiko korporatiboen garapen- eta mantentze-lanetako kontratazioak, bai eta Erabakiaren II. Eranskinean zerrendatzen diren gainerako ondasun eta zerbitzu informatikoen eskuratzeak ere.
- Erabakiaren III. eranskinean zerrendatutako medikamentuen eta bestelako farmazia-produktuen erosketak, bai eta erosketa bateratuen programa ere (osasun materiala eta hornidura eta zerbitzu estrategikoak: IV. eta V. eranskinetan zerrendatutakoak, hurrenez hurren).

Estrategikotzat jotzen diren kontratazioak halakotzat joko dira harik eta inbertsioak amaitzen diren arte. Ondasunak eta zerbitzuak erosteari dagokionez, berriz, Administrazio Kontseiluak halakotzat ez jotzea erabakitzen duen arte. Administrazio Kontseiluak xedatzen dituen korporazioko kontrataziorako ondasun eta zerbitzuen eskuratzeen kontratazioak eta erosketa bateratuen programak euren izaera galduko dute honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Kontratu zentralizatuen indarraldia 2026ko abenduaren 31 baino lehen amaitzen denean, Osakidetza Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiak ekitaldi berean kontratu zentralizatu berriak izapidetu eta esleitu ezin dituenen.

b) Bat-bateko egoeren ondorioz, Osakidetza Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiak ezinezkoa badu edo gomendatzen ez badu kontratazio korporatiboko ondasun eta zerbitzuen erosketei dagozkien kontratuak eta erosketa bateratuen programa izapidetzea eta esleitzea.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

LAUGARRENA. – 2026ko ekitaldian hirugarrenei osasun- eta irakaskuntza-zerbitzuak emateagatik haiek ordaindu beharreko tarifak onesteko erabaki-proposamena aurkeztea, Administrazio Kontseiluak onetsi dezan.

Hirugarrenei zerbitzu sanitario eta irakaskuntza-zerbitzuak emateagatik tarifak eguneratzea proposatzen da.

Gaur egun, Osakidetza zerbitzu-erakundeetan tarifa batzuk aplikatzen dira, Ente Publikoaren erakundeetan ematen diren osasun- eta irakaskuntza-zerbitzuak hirugarrenei fakturatzeko. Hala, beharrezkoa da 2026an aplikatuko diren tarifak zehaztea.

Onestea Osakidetza Ente Publikoan, 2026ko ekitaldian, aplikatzekoak izango diren zenbatekoak, ordaintzera behartuta dauden hirugarrenei zerbitzuak emateagatik, kontzeptuei dagokienez Erabakian ezarritako ildoan arabera.

Publizitaterako eta eraginkortasunerako, baldintza bakarra izango da tarifa-liburu bat argitaratzea, ordaintzera behartuta dauden hirugarrenen eskura egongo dena.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

BOSGARRENA. – Osakidetzako zuzendari nagusiaren hainbat ebazpenen (lanbide-garapeneko maila aitortzeko eskabideak ebazten dituztenak) aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoren inguruko erabaki-proposamenak egitea, eta, hala badagokio, onartzea.

Erabaki-proposamen bi aurkezten dira, gora jotzeko bi errekurtsoren harira, hain zuzen, Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 14ko 1594/2025 Ebazpenaren aurka jarritakoak. Ebazpen horren bidez Osakidetzako ekainaren 12ko 984/2025 Ebazpenaren akatsak zuzentzen dira. Azken ebazpen horren bidez, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebazten dira eta profesionalen lanbide-garapenaren mailaren behin betiko esleipena argitaratzeko agintzen da, 2024ko deialdiari dagokionez.

- Gora jotzeko errekurtsu 1 **baietsi** behar da, zeinetan C blokean lortutako puntuazioa berrikusteko eta garapeneko I. maila aitortzeko eskatzen baita. Ebaluazioa berrikusita baietsi egin behar da gora jotzeko errekurtsua, iritsi baita A.1 lanbide-taldeko I. maila aitortzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora.
- **Ezetsi** egin behar da gora jotzeko errekurtsu 1, zeinetan baloratu gabeko curriculum-merezimenduak baloratzeko eskatzen baita. Curriculumeko merezimenduak baloratu ondoren, ez da bidezkoa errekurtsua baiestea, oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituelako.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onartu dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

SEIGARRENA. – Erabaki-proposamenak, Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren zenbait gora jotzeko errekurtsori buruzkoak, Egonkortzeko EPEko eta 2020-21-22ko EPEko izangaien behin betiko zerrendari, destinoen esleipenari eta izendapenaren argitaratzeari buruzkoak; eta, hala badagokio, horiek onartzea.

38 erabaki-proposamen aurkeztu dira guztira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoei dagozkienak. Ebazpen horren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu eta destinoak eta izendapenak esleitu ziren Egonkortzeko EPEaren eta 2020-2021-2022ko EPEaren barruan, kategoria hauetan:

- Antolakuntzako goi-mailako teknikaria.
 - Administrazioako eta kudeaketako goi-mailako teknikaria.
 - Dietetikako T.E.
 - Erizaintzako laguntzailea
 - Zerbitzuetako langilea
 - Farmaziako laguntzailea
 - Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista
 - Administrazioako eta erabiltzailearen arretako laguntzailea
 - Medikuntza intentsiboko FEM
-
- Bidezkoa da gora jotzeko 32 errekurtso **baiestea**, honako arrazoi hauengatik:
 - ✓ Prestakuntza: Errekurtsu batean, prestakuntzaren atalean puntuazio handiagoa eskatu da. Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, puntuazioa gorantz aldatzea erabaki da, eta errekurtsoa baiestea.
 - ✓ Euskara: 7 errekurtsotan, euskararen hizkuntza-eskakizuna baloratzeko eskatzen da. Egiaztatu da euskara-eskakizunaren egiaztagiriak epe

barruan aurkeztu zirela, eta, beraz, merezimendu gisa baloratu behar dira hautaketa-prozesuaren lehiaketa-fasean, eta errekurtsok baietsi.

- ✓ Destinoen hautaketa osatugabea: 7 errekurtsotan, erresulta-fasean destinoak lortu ahal izatea eskatzen da. Kasu horietan, egiaztatzen da ezen, nahiz eta eskainitako destino guztiak hautatu zituzten (eskatutako baldintzak betetzen zituzten guztiak), ez zirela horietako bakar baten esleipendun izango, eta, beraz, bidezkoa dela izangaiak hautaketa-prozesuan sartzea eta erresulta-fasean parte hartzea; hau da, errekurtsok baiestea.
- ✓ Adimen-desgaitasunaren kupoko destinoak esleitzea: 16 errekurtsotan, adimen-desgaitasunaren kupoan edo beste desgaitasun batzuen kupoan parte hartzen duten izangaiek destino-esleipendun izateko eskatzen dute, lortutako puntuazioa kontuan izanik eta adimen-desgaitasunaren kupoan parte hartu duten izangaiei esleitu ez zaizkien eta ondorioz beste desgaitasun batzuen kupoan sartu diren destinoak kontuan izanik. Desgaitasun-kupoa osatzen duten pertsonen destinoa ez esleitzea akats baten ondorioz gertatu zen, eta dagozkien destinoak desgaitasuna duten izangaien artean esleituko dira, lortutako puntuazio-ordenari jarraituz. Bidezkoa da errekurtsok baiestea.
- ✓ Erresulta-fasean ez sartzea: Errekurtsok batean, Administrazio Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 27ko Erabakiaren bidez aitortu zitzaion lanbide-esperientziaren puntuazioa kontuan hartzeko eskatzen da. Errekurtsok hori baietsi behar da, eta puntuazio hori zenbatu; hortaz, destino-aukera duten Egonkortzeko EPEko erresulta-faseko izangaien zerrendan agertu behar da.
- ✓ Bidezkoa da gora jotzeko 6 errekurtsok **partzialki baiestea**, honako arrazoi hauengatik:

- ✓ Prestakuntza: 4 errekurtsotan, prestakuntzaren atalean puntuazio handiagoa eskatu da. Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, erreklamatutako puntuazioaren zati bat gorantz aldatzea erabaki da, eta errekurtsok partzialki baiestea.

- ✓ Euskara-eskakizuna eta prestakuntza: 2 errekurtsotan eskatzen da euskara-eskakizuna puntuatzea eta prestakuntzaren atalean puntuazio handiagoa ematea. Euskara-eskakizunaren dokumentua epe barruan egiaztatu dela egiaztatu da, eta merezimendu gisa baloratu da lehiaketa-fasean. Hala ere, prestakuntzaren atalean oinarri orokorretako 12.5 atala aplikatu behar da, eta, beraz, lanbide-esperientziaren eta euskararen atalak soilik argitaratu behar dira. Horregatik guztiagatik, bidezkoa da errekurtsok partzialki baiestea.


ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onartu dituzte aurkeztutako Erabaki-proposamenak.

ZAZPIGARRENA. – Informazioa eta galde-eskeak.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat ematen da, 2026ko abenduaren 16ko 14:00etan.



Izpta.- **Maiteder Mielgo Rubio**
Idazkaria



Izpta.- **Alberto Martínez Ruiz**
Kontseiluburua
Osasuneko sailburu jauna
O.E.